


Aurretiko izen-ematea betetzeko jarraibideak:

Webgunean, egin klik honako esteka honetara eramango gaituen tokian:


<https://amurrio.inika.net/preinscripcion>

Leiho hau agertuko zaigu:



Sakatu *Hasi* botoia.

Leiho hau agertuko da:



Markatu aukera egokia eta, ondoren, sakatu *Hurrengoa*.

Jarraian agertuko den leihoa desberdina izango da, hautatutako aukeraren arabera.

1. edo 3. aukera hautatu baduzu, *Datu pertsonalak* leihoa agertuko da. \* duten eremuak derrigorrean bete behar dira.

Datu Pertsonalak

Bete zure datu pertsonalekin. **IKASLEAREN ARDURA DA** datuak zuzenak direla baieztatzea.

Ez naiz inoiz matrikulatuta egon.

Izena \*

1. abizena \*

2. abizena \*

Jaiotze data\* - - -

NAN / AIZ \*

Sexua\*  Emakumezkoa  Gizonezkoa  Ez Binariora

Mugikorra \* Telefonoa \*

Emaila \*

Repite email \*

Helbidea \*

Ondoren, *Hurrengoa* sakatu beharko dugu.

2. aukera hautatu baduzu (egun matrikulatutako senideren bat izatea), sistemak ikasle gisa elkartuko zaituzte, familia unitateak ez ditzan komunikazioak errepikatuta jaso; beraz, honako leiho hau agertuko zaigu:

Erabiltzailearen egiaztapena

Sartu web orriko zure erabiltzaile eta pasahitza.

Beharrezkoak izango dira aurrematrikula erabiltzaileari esleitu ahal izateko.

Erabiltzailea \* 98234738V

Pasahitza \* \*\*\*\*\*

Atzera Hurrengoa

Une honetan eskolan ikasten ari den edo diren familia-unitateko kideei esleitutako erabiltzaile-izena eta pasahitza sartuko ditugu.

Gero, beste aukeretan agertzen den leihoa, *Datu pertsonalak* izenekoa, agertuko zaigu.

Datu pertsonalak idatzi ondoren, badaezpada berrikusi eta *Hurrengoa* sakatuko dugu.

Jarraian agertuko zaigun leihoa datu pertsonaletan adierazi dugun adinaren arabera izango da. Adibidez, 7 urteko haur baten datuak idatzi baditugu, irakasgai hauek egongo dira harentzat erabilgarri:

Akordeoa  
Bateria  
Baxu Elektrikoa  
Biola  
Biolina  
Biolontxelo  
Flauta Travesera

Zein irakasgaitan izena eman dezakegun jakiteko, eskolaren webgunera jo dezakegu, **Ikasketa-plana**. Bertan, eskema hau ikusiko dugu, laguntza gisa, mailaren eta adinaren arabera:

	Instrumentua	Taldeak	Teorikoak	Osagarriak	Gotortzeko ikasleak (kontserbatorioko sarrera-probetarako)
<b>I. MAILA</b>			Musika eta Mugimendua 5 urte		
	Instrumentuen txandak (Instrumentu aurrekoa)		Musika eta Mugimendua 6 urte		
	Instrumentuarekin kontaktua 1-7 urte		Musika eta Mugimendua 7 urte		
<b>II. MAILA</b>	Instrumentua II-Hastapena (ikasle berriak bakarrik)		Musika-Hizkuntza II-Hastapena (ikasle berriak bakarrik)	II. Mailako Osagarriak	Hasteko gehienezko adina 16 urte; kanturako (18 urte) eta kontrabaxurako (23 urte) izan ezik.
	Instrumentua II-1	Talde txikiak	Oinarrizko Musika-Hizkuntza II-1 eta Abesbatza		
	Instrumentua II-2		Oinarrizko Musika-Hizkuntza II-2 eta Abesbatza		
	Instrumentua II-3		Oinarrizko Musika-Hizkuntza II-3 eta Abesbatza		
	Instrumentua II-4		Oinarrizko Musika-Hizkuntza II-4		
	Instrumentua II-5		Musika-Hizkuntza Aurreratua II-5		
	Instrumentua II-6		Musika-Hizkuntza Aurreratua II-6		
<b>III. MAILA (TALDEKOA)</b>	Instrumentua III-1		Talde handiak	Musika-Hizkuntza III-1	III. Mailako Osagarriak
	Instrumentua III-2	Musika-Hizkuntza III-2			
	Instrumentua III-3	Musika-Hizkuntza III-3			
	Instrumentua III-4	Musika-Hizkuntza III-4			
	Instrumentua III-5	Musika-Hizkuntza III-5			
	Instrumentua III-6	Musika-Hizkuntza III-6			
<b>IV. MAILA</b>	Instrumentua IV	Talde handiak	Ganbera-musika		Hasteko gehienezko adina: 21 urte

Instrumentuak: Akordeoia, Baxu elektrikoa, Bateria, Kantua, Klarineta, Kontrabaxua, Zeharkako Txirula, Gitarra klasikoa, Gitarra elektrikoa, Organoa, Perkusioa, Pianoa, Saxofoia, Teklatura, Tronboia, Tronpeta, Txistua, Biola, Viola da gamba, Biolina, Biolontxelo

Txikien taldeak: Txiki Orkestra, Txiki Banda, Txiki Konboa, Txistuko txiki taldea, Akordeoiko txiki taldea, Gitarra txiki taldea

Talde handiak: Orkestra, Banda, Konboa, Txistuko Taldea, Akordeoiko Taldea, Gitarra txiki taldea

Ahots-taldeak: Eskolania (11-15 urte), Gazteen Abesbatza (16-25 urte), Helduen Abesbatza (26-64 urte)

II. Mailako Osagarriak: Muskarako informatika I

III. Mailako Osagarriak: Muskarako informatika II

Helduak: musika-prestakuntza 18 urte edo gehiagorekin hasten den pertsona. Arreta berezia izango du eta ikasgai osagarrietan malgutasun handiagoa; taldeak antzeko interes, gaitasun eta adinen arabera osatzen saiatuko gara

Orientazio gisa, honako aukera hauek izango ditugu:

- 4-5 urteko haurrentzat, *Musika eta mugimendua* agertuko da irakasgai gisa (musikaren oinarrizko ezagutzak, hala nola erritmoa, psikomotrizitatea, soinuak entzuten eta bereizten ikastea...).
- 5-6 urteko haurrek *Musika eta mugimendua* eta *Instrumentuen txandak* irakasgaietan emango dute izena (ikasturtean zehar, haurrak musika-tresna guztiak probatuko ditu, bat aukeratu aurretik guztiak probatzeko).
- 6-7 urte:
  - o *Musika eta mugimendua*, aurreko urtea *Musika eta mugimendua* irakasgaia egin zutenentzat.
  - o *Oinarrizko musika-hizkuntza II* ikasle berrientzat.
  - o Horrez gain, *Lehen aukerako tresna* ere hautatuko dugu (instrumentu bakarra); instrumentu hori jotzen hasiko gara.
  - o **Garrantzitsua:** instrumentu batzuetan eskaera handia denez, batzuetan ez dago ikasle guztientzako tokirik instrumentu horretan; hori dela eta, *Bigarren aukerako tresna* eta *Hirugarren aukerako tresna* ere beteko ditugu (nahitaezkoa), eta horietako bakoitzean instrumentu **desberdin** bana aukeratuko dugu, lehenengo edo bigarren aukeran tokirik egongo ez balitz ere. Izena eman ondoren, eskolak jakinarazi egingo digu instrumentu batean edo bestean onartu gaituzten. *Bigarren* eta *hirugarren aukeran* beste instrumenturik aukeratzen ez badugu, batean ere plazarik ez lortzeko arriskua izango dugu; izan ere, azken finean, instrumentuak horixe baino ez dira, instrumentuak, eta gure azken helburua musika egitea da, berdin dio zerekin...
- Beste adin batzuk:
  - o Instrumentu batean izena emateko aukera izango dugu (kantua barne) eta, horretarako, hiru atal hauek bete beharko ditugu: *lehen aukerako tresna*, *bigarren aukerako tresna* eta *hirugarren aukerako tresna*, aurreko kasuan bezalaxe (ikusi 6-7 urte).
  - o Horrez gain, gure mailaren arabera, musika-taldeetan eta abesbatzetan izena eman ahalko dugu (nahitaezkoak III. mailan), baita ikaskuntza aberasteko irakasgai osagarrietan ere.
  - o Aurretiko musika-esperientzia izatekotan, komenigarria da horren berri ematea, aukera agertu ahala.
  - o Horrez gain, musika-taldeetan zer tresna jotzen dugun adierazi beharko dugu, irakasleek kontuan har dezaten eta taldeak modu uniformeagoan antolatu ahal izan ditzaten.
  - o Zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan eskolako idazkariarekin edo ikasketa-buruarekin, 945 89 10 03 telefono-zenbakian edo [musikaeskola@amurrio.org](mailto:musikaeskola@amurrio.org) helbide elektronikoan. Pozik lagunduko dizuegu.


Irakasgaiak aukeratu eta bete ondoren, *Hurrengoa* sakatuko dugu.

Aurretiko izen-ematearen laburpena agertuko zaigu.

**Bukatu** sakatu baino lehen:

- Datuak berrikusiko ditugu, akatsik ez dagoela ziurtatzeko.
- Honako hau esaten duen tokira joango gara: *Eskaera bukatu aurretik, irakurri datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.* [Hemen](#) eta *Hemen* sakatuko dugu. PDF bat irekiko da, datuen nahitaezko tratamendua baimentzeko. Dokumentu hori deskargatu, bete eta eskolari bidali beharko diogu, paperean edo posta elektronikoz.

**Bukatu** sakatuko dugu eta hau ikusiko dugu:



Berresteko mezu elektronikoa iritsiko zaigu postara; horrela, osatuta egongo da aurretiko izen-ematea.

Aurrerago, eskolak gainerako xehetasunen berri emango digu (onartutako tresna etab.).

Gida hau erabilgarria izatea espero dugu.